

Internet adin txikikoen ohiko erreminta da. Ordu ugari ematen dute Interneten, eskolan zein etxean. Horregatik, guraso zein haurrek Internetek dakartzan arriskuen berri izan behar dute, hala nola, hauei aurre egiteko bidez.

Espanian 10-14 urte bitarteko neska-mutilen artean 10etik 7k Interneten erabiltzaile dira. Katalunian ordea adin txikikoen %88,5ak du Internetera sarbidea.

BEREHALAKO MEZULARITZA

1. Arriskueta bat **NOR-TASUNAREN ORDEZKAPENARENA DA.** Adin txikikoak harremanetan ipini daitezke euren burua gazte arruntzat aurkezten duten pederastekin. Haurrak arrisku honetatik baztertzeko, ezezagunekin harremanak errefusa ditzaten erakutsi behar zaie, bizitza errealean egiten den eran. Horrez gain, behar besteko konfiantza eskaini behar zaie haurrei, zalantza edo izuen aurrean guraso edo bestelako helduekin hitz egin dezaten arazorik gabe.



EGOERA HORRETAN HAURREN ESKARMENTU GABEZIA DELA ETA, BERTAN DATORREN INFORMAZIOA EGIKOTZAT JO DEZAKETE, euren burua kaltetuz, ludopatian eroriz edota droga edo sendagaiak eskuratuz.



2. **BIRUS EDO MALWAREA:** birus eta infekzioak urrun mantentzeko komenigarria da bide honetatik hel dakizkigukeen fitxategi eta estekarik ez zabalzea. Hauek bidali dizkigunari haien jatorriaz galdetu aurretik, bederen.

2. **BIRUS ETA BESTELAKO MALWARE BIDEZKO KUTSATZEA.** Gai erakargarriak amu moduan erabiliz, erabiltzaileak esteka bat saka dezan edo fitxategi kutsakor bat saretik jaitsi edo exekutatu dezan saiartzea du oinarri, ondorioz sistema infektatuz. Gai iradokitzaileak erabiltzen dituzte: filmeen trailerrak, pertsona ospetsuen argazki erotikoak, joko deskargak... Hainbat dira iruzurrean erortzen diren helduak, beraz, are handiagoa izango da arriskua adin txikikoez ari garenean.

POSTA ELEKTRONIKOA

Hainbat dira sor ditzakeen arriskuak:

1. SPAM-A. Maiz iristen dira helbide elektronikoetara sareko joko-etxe edota sendagaien iragarkiak.



FITXATEGIEN ELKARTRUKERAKO SAREAK



Erabiltzaileen artean fitxategiak trukatzeko programak, Kazaa edo eMule kasurako, ordenagailuak kutsatzearen eragileetako bat dira halaber. Filmen edo programen izen erakargarri moztururik ezkatatu ohi dira birus eta kode maltzurak, erabiltzaileen jakin-nahia piztu eta deskargatuak izatera bultzatuz.

HAURREK JAKIN BEHAR DUTE SARE HAUETARIKO ZEIN FITXATEGI DESKARGATU ETA ZEIN EZ.



SARE SOZIALAK ETA BLOGAK


Fitxategiak elkartrukatzeko, jende berria ezagutzeko... erabiltzen diren sare sozialak eta blogak, gazteek gehien bisitatu dituzten web guneak dira. Web orri hauetan parte hartu edo harpidedun izateko profil pertsonala sortu behar da. Profil hauetan hainbat dira azaltzen diren datuak: izena, adina...

Gehienetan, helbide elektronikoa eta izena (edota nick edo ezizena) azaltzearekin nahikoa izan ohi da. Eta jakina, gomendagarria da **ADIN, HELBIDE EDO ARGAZKIRIK EZ AGERTZEA.**



ARRISKU ITURRI NAGUSIAK

Gaur egun berehalako mezularitza gazteen komunikazio tresna nagusia da, baita ziber-gaizkileen okerkerietarako gotorleku ere.



Adin txikikoak INTERNETEN





GURASOEI AHOLKUAK

- 1 • **HITZ EGIN EZAZU ZEURE HAURREKIN:** Lehen urratsa da haurren babesean. Zein gune arakutzen dituzten, norekin dauden harremanetan edota zer duten gustuko jakitea komeni da, etxetik irteten direnean horren guztiaren berri izan nahi duzun bezalaxe. Internet erabiltzean ongi zein txarto ari diren ikuskatu behar da.
- 2 • **INFORMAZIOA ESKURATU ETA ZEURE HAURREI AHOLKUA ESKAINI IEZAIEZU:** Horretarako urrats handia litzateke sareak haurrei eskaintzen dizkien erremintak eta hauen arriskuak, nola ekiditeko erak ezagutzea.
- 3 • **INTERNET ERABILTZEKO ARAU ZURRUNAK EZARRI:** Ordutegia, konexioen iraupena eta erabilera mota zehazteko oinarriak ezarri behar dira. Hauek betetzen direla ziurtatu behar duzu, batez ere gauez egiten den erabilerari dagokionean. Kontuan izateko beste eragile bat bada ordenagailua etxeko zein gunetan kokatzen dugun: senitarteko guztiak ordenagailu bakarri erabiltzen badute, hobe da areto amankomunak aukeratzea, txikienaren logela baztertuz.
- 4 • **DEBEKA IEZAIEZU ADIN TXIKIKOEI ISILPEKO INFORMAZIOA ZABALTZEA:** Zure seme-alabei izena, helbidea edo argazkirik ez banatzen irakatsi behar diezu, arakutzen dituzten web orrialde edo foroetan ezizenak erabiltzea aholka iezaiezu.
- 5 • **AZALETIK EZ EPAITZEN IRAKATSI IEZAIEZU:** Sarean, dirudiena maiz ez da benetan dena. Haurrei irakatsi behar zaie mesfidantzaz jokatzeko eta euren segurtasun eta barrukotasuna babesean mantentzen.
- 6 • **SEGURTASUN BITARTEKO ONAK INSTALATZAZU:** malwarea haurrengandik urrun mantentzeko, PANDAK eskaintzen duen erreminta eraginkor eta eguneratua hauta ezazu.

PANDA SECURITY

© Panda Security 2008. 1008-MR-PANR-EU-01

www.menorenlared.com

ADIN TXIKIKOAK SAREAN

HAUR jolasa ote?

BEHAR BEZALAKO HEZIKETAK BABESTUKO DITU INTERNETEN



PANDA SECURITY | One step ahead.